

## → Laburrak

### Euskal arkitektoei buruzko lana atera du Jauriaritzak

**ARKITEKTURA** > Eusko Jauriaritzak liburu batean bildu ditu San Fernandoko Errege Akademiak euskal arkitektoei XVIII. eta XIX. mendeetan egindako azterketak. *El proyecto de arquitectura en la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando* du izenburutzat lanak, eta Jose Laborda Ynevak egin du; 1776tik 1855era berrehun bat euskal arkitekto egindako azterketak bildu ditu.

### 'Die tote Stadt' opera lau egunez, OLBEn eskutik

**MUSIKA** > Erich Korngold musika sortzaile txekiarraren *Die tote Stadt* opera eskainiko du Olbe Operaren Lagunen Bilboko Elkarteak lau egunez. Lehen emanaldia etzi izango da, eta hileren 24an, 27an eta 30ean izango dira hurrengo emanaldiak. Emily Magee (sopranoa) eta Robert Dean Smith (tenorra) estatubatuarrek izango dira protagonistak roletan, eta Tommi Hakala baritono finlandiarra izango dute lagun.

### Lehen hiru diskoak berri argitaratu ditu Capsulak

**MUSIKA** > Bilbon egonkorturiko Capsula talde argentinarrek Buenos Airesen argitaratutako *Sublime* (1999) eta *Yudoka*, eta gurean plazaraturiko *Capsula* berri argitaratu ditu maiatzean, Gaztelupeko Hotsak zigiluaren eskutik. Horrez gain, David Bowleren *Ziggy Stardust* diskoaren interpretazioa pertsonala grabatu dute. CD eta binilo eskarrian emango da argitara.

### Olatu Talkako jarduerak egingo dira Urumean

**KULTURA** > Donostia 2016 proiektua bultzatzeko asmoz, datorren maiatzaren 11tik 13ra egingo den Olatu Talka jaialdiaren gune garrantzitsua izango dira Urumea ibai eta haren ingurumariak. Hainbat ekintza egingo dira haren bueltan. Antolatzaileek jakinarazi dute, gainera, Donostiako auzoetan 100 bat jarduera egingo direla egun horietan.

### 1,7 milioi euro, Bilboko Arte Eder museoarentzat

**ARTEA** > Bizkaiko Foru Aldundiak 1.703.839 euroko diru laguntza emango dio Bilboko Arte Eder museoari, 2012ko inbertsioak eta ekimenak finantzatzeko. Aurten obra berriak erosi nahi ditu museoak.

# Dantzaren hanka hotsa

Aiko musika eta dantza tradizionalen taldeak 'Oinak kantuz' diskoak kaleratu du, bost urteren ostean

### Erredakzioa

Duela bost urte argitaratu zuen Aiko taldeak *Herri musika ta dantza* izeneko lana. Musika eta dantza irakaslez osaturiko taldeak dantza tradizionalaren mundua ezagutarazi, irakatsi, sustatu eta herrikoitzeko asmoz abiatu zuen egitasmoa. Orain, *Oinak kantuz* izeneko lana argitaratu du Elkar etxearekin. Grabaketak berak, erritmoek eta abestiaren ordenak dantza saio bat edota erromeria bat gogorarazten dute.

CDko abesti guztiak berriak dira, baina modu tradizionalen idatziak eta interpretatuak: pasodobleak, jotak, jauziak, txotisak... Bolero, habanera eta tangoren bat ere bai tarlatan. Aitor Furundarenaren, Alvaro Garciaeren eta Sabin Bikandiren konposizioak entzuteko ez ezik, dantzatzeko ere eginak dira; taldekideen esanetan, «dantza egitea musika entzuteko era bat da». Aikoren hainbat musika lanen izaera eta soinua kontuan hartuta, badiruz



Aikoko kideak, *Oinak kantuz* lanaren aurkezpenean, Bilbon. XONHERNAEZ / ARP

di paper zaharren artean aurkituak edo kalean grabatuak direla: «Oso faltutzaila trebeak gara», esan ohi dute erdi txantxetan taldeko kideek, euren gai asko antzinakoak, tradizionalak eta herrikoiak direlako; baina hori konplimentuzko lorea da taldearentzat.

Lehen lana atera zutenetik bigarren hau kaleratu duten artean ez da geldirik egon taldea, hainbat lan grabatu baitituzte: *Kobreiki!* Bizkaiko gaita-dultzainari eskainitako lan monografikoa; *Aurrez aurre*, Claude Iruretagoienak zuzendutako Maritzuli konpainiaren izen bereko ikuski-

zunen musika; *Urraska*, jauzi tradizional guztiak biltzen dituen liburu, CDa eta DVDA; *Fasioren mendea*, Bonifazio Arandia Fasio soinu jotzailearen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko argitaraturiko liburu, DCA eta DVDA eta; *Bikaña*, dantzarako musika berria, gaita eta danborrentzako prestatutako lana.

CDaren izenburua, *Oinak kantuz*, Bikandiren koplaren batean oinarriturik dago. Horrek, alibakaz lagunduta, taldearen lehenengo diskoan zera abesten zuen: «Dantzan ez dakiena, beti dau kontetan; dantzari ona, berriz, hankakaz kantetan».

## Irudia > Napoli



## MARGOLANAK ERRE, PROTESTA EGITEKO

*Art War* (Artearen gerra) izena jarri dio ablarazi berri duen ekimenari Antonio Manfredik, Casoriako Arte Garaikideko museoko zuzendariak —Napolitik gertu dago—. Izan ere, Italiako Gobernuak kulturarentzako aurrekontuan murrizketa han-

dial egin dituenaz, astean hirutan margolan baina erretzea erabaki du, protesta gisa. «Milaka obra horiek, halere, ezereza kondenatuta daude», esan zuen Manfredik. Irudian, atzo, Severine Bourguignonen obra bat erretzen. T.C. ARBATE / EFE



Kultura eta aisia  
euskaraz  
Donostian

### zinema

- **Salda badago**  
Zuz: Erix Zapirain. 65 min.  
Euskal Rockari buruzkoa  
Apirilak 19, 18.15  
Doan. Ondoren solasaldia  
Ernest Lluch kultur etxea.
- **Rio**  
Carlos Saldanha. AEB. 96 min.  
2011  
Adina: Denontzat  
Apirilak 19, 17.30  
Larrotxene kultur etxea.

### ipuinaren Ordua

- **Tomaxitaren etxe kokorra**  
2-4 urtekoentzat  
Apirilak 19, 18.00  
Egia K.E.
- **Oporretatik ekarritako ipuinak**  
5 urtetik gora  
Apirilak 20, 18.00  
Larrotxene K.E.

### haur zerteria

- **Iriren lagunak**  
Largabista basozainarekin  
Apirilak 21, 12.00  
Elkar aretoa  
(Fermín Calbeton 21)  
Doan
- **Grimmo oihera**  
La maquiné taldea  
Adina: 5etik gora  
Apirilak 21, 18.00  
Lugaritz kultur etxea.  
Sarrera: 3,5 €  
Testurik gabe
- **Pon ta Pa**  
Bapatean zirku taldea  
Adina: Denontzat  
Apirilak 21, 18.00  
Larrotxene K.E.  
Doan
- **Maddi pirata**  
Zirtaka taldea  
Adina: 6tik gora  
Apirilak 21, 18.00  
Okendo K.E. (Gros)  
Doan

### ipuin musikatua

- **Leleeri gertatutakoa**  
Araoz Gaztetxo abesbatza  
Adina: Denontzat  
Apirilak 21, 17.30ean  
Aiete kultur etxea. Doan

### bertsoak

- **Berto saioa**  
Julio Soto, Miren Amuriza,  
Sustrai Colina, Arkaitz Estiballes,  
Unai Gaztelumendi, Behat  
Gaztelumendi  
Gai-jartzaile: Iker Iriarte  
Apirilak 22, 18.00  
Egia kultur etxea.



www.euskaraz.net